



**ERABAKIA, .....REN EGINBIDEARI BURUZKOA, .....(REN)  
ZUZENDARIAK .....(R)EKIN IZANDAKO TELEFONO DEI BATEAN USTEZ  
IZANDAKO JOKABIDEA DELA ETA**

**I. KONTSULTA**

1. Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko gobernukideen eta goi kargudunen Etika Publikoaren Batzordearen postontzi elektronikoan diputatu nagusiaren mezu elektroniko bat jaso da, zeinaren bidez batzorde honi helarazi baitzaio .....k bidalitako eginbidea. Eginbide horretan, aditzera ematen da abuztuaren 25ean .....k eta .....(ren) zuzendariak izandako telefono bidezko elkarrizketa batean, azken horrek “hezibiderik eta begirunerik gabe” hitz egin ziola lehenengoari, ahotsa goratu zuela eta izendapen politikoko zuzendari karguan dagoen bati ez dagokion hizkera hantustea erabili zuela.

Bidaltzaileak irizten dio jokabide horrek Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko kargu publikodunen eta ordezkarien Gobernu Onerako Kode Etikoaren Seigarrena. 3 i) apartatua urratzen duela, apartatu horrek, printzipio etikoak eta jokabide printzipioak zehazten dituenean, xedatzen baitu jokabide printzipioetako bat dela langile publikoekin gizalegez, duintasunarekin eta begirunearekin jokatzeari, erakundearen helburuak zehazten eta lortzeko ahaleginetan parte hartzea, eta lan giro egokia bultzatzea.

Azkenik, diputatu nagusiari eskatzen dio, Arabako Foru Aldundiko zuzendari izendapeneko kargudunen azken arduraduna den aldetik, jokabide hori ez errepikatzeke neurriak har ditzala.

2. Idazki hori jaso ondoren, .....(ren) zuzendariari helarazi zitzaion, Etika Publikoaren Batzorde honi bidal diezazkion jasotako kontsultan egiten diren gogoeta eta gertakariei buruz egokitzen zituen adierazpen eta alegazioak.
3. 2022ko urriaren 7an, kearen xede den pertsonak bidalitako mezu bat sartu zen Batzordearen posta elektronikoko postontzian. Mezu horrekin batera, honako hauek aurkeztu zituen: alegazioen idazkia, .....n egindako agiriak, berak zuzentzen duen Zuzendaritzako administrazio unitateen txostenak, bai eta .....ren buruaren eta zerbitzu horretako ekonomialari teknikari baten testigantzak ere, horiek ere ustez .....(ren) zuzendariak foru kargu publikodun bati ez dagokion jokabidea izan zuen telefono deian egon baitziren.

Alegazio idazkian, hasteko, zehatz-mehatz azaltzen ditu gertaeren egunean .....(r)ekin izandako deiak. Zehazten duenez, 09:42ko elkarrizketa, zeinean ustez jokabide desegokia izan baitzuen, esku libreko sistemaren bidez egin zen, eta, agian, horregatik, halako funtziorik gabeko elkarrizketa batean erabiltzen den ahots tonua baino ozenagoa zerabilela eman zezakeen; izan ere, dioenez, elkarrizketa bi aldeetako entzuleek entzuteko egindako ahalegina



zela-eta, beharbada, tonu apur bat ozenagoan hitz egingo zen, baina inola ere ez zen izan tonu iraingarririk edo ahots goratzerik kontsultaren arrazoiagatik edo egoeragatik.

Erantsi du, nolana ere, bere ahots tonua irmoa eta sendoa dela, baina elkarrizketa horretan bere asmoa ez zela inoiz izan salatzailea gutxiestea edo hari min ematea.

4. Bere hitzen bidez ez duela inolako begirune faltarik izan erakusteko arrazoi eta azken froga gisa, bere saileko bi funtzionarioen testigantza aurkeztu du: ..... Zerbitzuaren buruarena eta administrazio unitate horretako ekonomialari teknikari batena.

Lehenak adierazi duenez, .....(ren) zuzendariak iruzkin bat egin zuen aurrekontuaren kontrolean .....k dituen erantzukizunei buruz, baina iruzkin hori “ez zen izan adeigabea edo mespretxukoa inoren aurka. Izatekotan ere, litekeena da gaizki interpretatu izana esku libreko elkarrizketa testuinguru batean, non batzuetan ozenago hitz egiten baita beste aldekoek entzuteko”.

Bestalde, ekonomialari teknikariak adierazi du, bere iritziaren arabera, ez ziola begirunerik galdu .....(r)i, ez zuela iraindu, eta ez zuela oihu egin ozen, oso ozen. Eta beste hau erantsi du: “Laneko dei bat izan zen, beste pertsonak dituen eta babestekoak diren eskubideei eraso egiteko asmorik gabe egina. Nire ustez, zuzentasunez jokatu zenuen (goi kargudunen kode etikoa)”.

## II. APLIKATZEKOAK DIREN ARAUAK

1. Diputatuen Kontseiluaren irailaren 3ko 477/2015 Erabakiaren bidez, zeina legegintzaldi honetan 654/2019 Erabakiaren bidez berretsi baitzen, onespena eman zitzaion Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko kargu publikodunen eta ordezkarien Gobernu Onerako Kode Etikoa (aurrerantzean, GOKE), foru sektore publikoan printzipio etikoen sendotzea babestu eta gidatzeko.

Kode horretan, kargu publikodunen jokabideari buruzko zenbait printzipio orokor jaso dira. Printzipio horiek zintzotasunaren eta gardentasunaren inguruan daude antolatuta, eta hiru arlotan proiektatzen dira: erakunde kalitatean, herritarrekiko harremanetan eta norbere etika eta jokabidean.

2. Foru kargu publikodunen jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauaren 19.3 artikulua Arabako Lurralde Historikoko foru sektore publikoko gobernuko kideen eta goi kargudunen Etika Publikoaren Batzordea izatea aurreikusten du, bai eta batzorde horren egitekoa aipatutako kodea bete dadin zaintzea izatea ere.

Horiek horrela, GOKeren zazpigarren apartatuan Etika Publikoaren Batzordea sortu zen, organo independente gisa, kode horretan araututako jokabide arau, printzipio eta balioak



bultzatu, sustatu, haietaz arduratu eta beteko direla bermatzeko, bai eta erakundearen irudia kaltetu lezakeen arau hauste edo okerreko jokabide orori aurrea hartzeko ere.

3. Etika Publikoaren Batzorde horren eginkizunak foru gobernuko kideengan, goi kargudunengan eta Arabako Foru Aldundiaren, haren erakunde autonomoen, sozietate publikoen eta fundazioen zerbitzura dauden gainerako zuzendariengan proiektatuko dira, bai eta Gobernu Kontseiluak edo haren organo eskudunek —foru-sozietate publikoen kasuan— izaera eta kapitalaren zatirik handiena pribatua duten erakundeetan edo haren kontrola hainbat administrazio publikori edo haien sektore publikoei dagokien beste edozein erakundetan zuzendaritza edo administrazio karguak betetzeko izendatutako pertsonengan ere, baldin eta egungo GOKeri atxikita badaude, bai automatikoki hautatzen edo izendatzen diren unetik, bai kodea onetsi aurretik izendatutako kargudunen kasuan kontrakorik adierazi ez dutelako.

Hori dela eta, kexaren xede den pertsonari aplikatzen zaio GOKE.

### **III. ETIKA PUBLIKOAREN BATZORDEARI IRITZIA EMATEKO AURKEZTU ZAION GAIA**

1. Eskatzaileak kexa bat aurkeztu du, .....(ren) zuzendariaren eginkizun publikoetako jarduna Gobernu Onerako Kode Etikoan ezarritako jokabide arau eta balioekin bat datorren ala ez zehazteko.
2. Kargu publikodunek GOKEn ezarritako arauen arabera jokatzeari dagokionez, batzorde hau ez da ahalmen mugaezinak dituen organoa; haatik, batzorde honen egitekoa askoz ere xumeagoa da, eta ez da arduratzen aztertzen dituen gaiak oro har etikoak diren ala ez erabakitzeaz, baizik eta jokabide horiek aipatutako kodean jasotako balioen eta printzipioen aurkakoak diren adierazteaz besterik ez.
3. Kexa idazkia agiri bakun eta laburra da, eta, agiri euskarririk ez izateaz gain, ez du zehazten zein izan zen zehazki bere aurkako hezibide eta begirune falta. Aitzitik, salaketaren xede den pertsonak ustez GOKEn urratzea gertatu zen telefono bidezko elkarrizketaren nondik norako zehatzak dokumentatzeko bidalitako agirietan, funtzionarioen adierazpenak jaso dira, eta adierazpen horietatik ezin da ondorioztatu foru zuzendariak hitzezko gehiegikeriarik edo begirune faltarik izan zuenik, edo jokabide mespretxuzkorik edo desegokirik erakutsi zuenik.
4. Zalantzarik gabe, langile publikoengana hezibide eta begirunerik gabe zuzentzeak urratu dezake seigarren artikulua 3. apartatuaren i) letran jasotako jokabide printzipioa, langile publikoekin gizalegez, duintasunarekin eta begirunearekin jokatzeari, erakundearen helburuak zehazten eta lortzeko ahaleginetan parte hartzea, eta lan giro egokia bultzatzeari buruzkoa.



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava

Arabako Lurralde Historikoko sektore  
publikoko gobernukideen eta goi  
kargudunen Etika Publikoaren Batzardea

Comisión de Ética Pública de los miembros  
del Gobierno y altos cargos del sector  
público foral del Territorio Histórico de  
Álava

Kasu honetan, hala ere, kearen xede den pertsonak aurkeztutako agiriez ez dute biderik ematen aurreko paragrafoan adierazitako jokabidea bezalako delatza ondorioztatzeko. Puntu horri dagokionez, azpimarratu behar da salaketa jasotzen duen pertsonak egiaztatutako frogaren alde nabarmena. Izan ere, pertsona horrek, bere alegazioen oinarri gisa, telefono bidezko esku libreko elkarrizketan egon ziren beste pertsona batzuen testigantza aurkeztu du. Alde hori hain da nabaria ezen gure erabakia salaketa jasotzen duen pertsonak aurkeztutako froga materialean oinarritu behar baita.

Hori delatza eta, kearen sustatzaileak ez duenez aurkeztu beste froga elementurik, ez dugu arrazoirik ikusten pentsatzeko .....(ren) zuzendariak 2022ko abuztuaren 25eko telefono elkarrizketan erabili zituen hitzezko adierazpenek eta terminoek etikoki zilegi denaren muga gainditu dutela.

Horregatik guztiagatik, Etika Publikoaren Batzardeak, aho batez, honako hau ebatzi du:

## **EBAZPENA**

Enplegatu publikoei tratu desegokia eta begirune gabea emateak berekin dakar —edo, gutxienez, berekin ekar dezake, kasu bakoitzean gerta daitezkeen inguruabarren arabera— Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko Gobernu Onerako Kode Etikorekin bat ez datorren jokabidea izatea (Seigarrena 3.i) apartatua, balio etikoei lotutako jokabide arauetara buruzkoa). Hala ere, kasu honetan, salatutako pertsonak aurkeztutako agiriez ez dute ahalbidetzen ondorioztatzea horrelako jokabide baten aurrean gaudela.

**Sin: Cristina González Calvar**  
**BATZORDEBURUA**

**Sin: Elena Ferreira Sebastián**  
**KIDEA**

**Sin: Javier Garaizar Candina**  
**KIDEA**